



JARDUERAK

Nola emango dugu proiektuaren berri?

Proiektuaren berri komunikabiden bidez emango da. Hau da egunkarian zein albistegietan agertuko da. Honela guztiek izango dute aparkatzeko modu berriaren berri.

Egunkarian, berriaz gain QR kodigo bat aurkituko da eta honela zuzenean aplikaziora zuzenduko zaitu eta instalatzeko aukera emango dizu.

Bertan teknika berria ondo azalduta aurkituko duzu baita ere. Horrela berriaren bidez ezagun egingo dugu gure aplikazioa eta proiektua aurrera ateratzea lortuko dugu




Nor arduratuko da jarduera bakoitzaz?

Ilargi aplikazioaren diseinuan berrikuntzak egiten arituko da, aplikazioa egokiagoa bihurtzeko. Ihintzek aplikazio barnean egongo diren iragarkien enpresekin harremanak uztartuko ditu.

Informatikako arazoak edukiz gero, hori konpontzeaz arduratuko da Malen. Irenek berriz, aplikazioaren diru kontuak kudeatuko ditu.

Bulegoan berriz bi pertsona arituko dira eta bi hilabetero bi pertsona horiek txandakatzen joango dira.

Aurreko puntuan esan bezala, bulegoan beti bi pertsona egongo dira kontsumitzaileen zalantzak argitzeko.



Elkar laguntza

Horrez gain, denok elkarri laguntzen saiatuko gara, egunen batean oso lanpetuta baldin badago gure lankidea, bere lana murriztuko diogu. Gure enpresaren inguruan emango ditugun bilkuretan binaka joango gara eta bikote horiek txandakatuz, horregatik astearen bukaeran hurrengo astea nola burutuko dugun antolatuko dugu. Hitzaldirik edukiz gero zein joango den, zer lan egin behar dugun aste horretan...

Beste alde batetik sensoren enprekin akordio bat hitzartuko dugu, beraiek gure irabazien %20az jabetuko dira baina bueltan sensoreak sortu eta haien mantenuaz arduratuko dira. Berriz sensore horiek instalatzeko garaian, jarduera horietaz ezin dira beraiek arduratu orduan autonomo bat kotratatuko dugu.

Autonomo hori aparkalekuko sensoreak instalatzeaz arduratuko da. Guk berriz egindako lanarengatik momentuan ordainduko diogu. Horretaz gain aplikazioaren barnean zenbait iragarki aurkituko dira. Iragarki horiek ere gure eta enpresen arteko hitzarmenez lotuak egongo dira.



%20